

Zerbitzuan: artikulu-deialdia

Zerbitzuan aldizkariaren hurrengo zenbakirako artikuluak jasotzeko epea ireki da

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzaren mandatuz, SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa 2017 eta 2021 urteen artean indarrean egongo den Gizarteratze Euskal Planaren prestaketarako diagnostikoan murgilduta dago. Lan honen baitan, *Zerbitzuan* (ISSN: 1134-7147) **aldizkaria gizarteratzeari buruzko monografiko bat prestatzen ari da** eta urrian argitaratuko litzateke. Zehazki, Planaren diagnostikoa definitzen edota bere helburu nahiz neurriak planteatzen lagunduko duten artikuluak jaso nahi dira eta honako gaiak jorratu beharko lituzkete:

- Bazterkeri egoeran edo arriskuan dauden pertsonen behar eta ezaugarriak.
- Bazterkeri egoerei buruzko gizarte-pertzepzioa, gizarteratze-politiken onarpen maila, diskurtsoen bilakaera.
- Bazterkeriaren aurkako politikak antolatzen dituen eskumen-esparrua.
- Alor honetan garatu diren politika desberdinen ezaugarri, norainoko eta eraginkortasuna, batez ere enplegu, diru sarreraren bermaketa eta gizarte zerbitzuen politikenak.
- Esparru kontzeptualen eta egun nagusi diren edo agertzen ari diren paradigmen baliozkotasuna (aktibazioa, gizarte inbertsioa, pertsonarengan oinarritutako arreta).
- Esperientzia interesgarriak.

Proposamenak jasotzeko muga eguna **2017ko ekainaren 15a** da.

Monografikoa osatuko duten testuak aukeratu ondoren, artikuluak bidaltzeko epea irailaren 1a izango da. Originalek, euskaraz edo gazteleraz, [aldizkariaren arau editorialetara](#) egokitu beharko dute.

Edozein kontsulta edo proposamen bidali nahi badiguzu, idatzi mesedez helbide honetara:

publicaciones@siis.net